


KOSTUAK

Hasierako kostuak:

Gure negozioa martxan jartzeko, hasierako inbertsio batzuk egin beharko ditugu. Lehenik eta behin, alokailuaren seinale bat eman beharko dugu. Hau 1600 eurokoa izango da. Beste alde batetik, zenbait obra egin beharko ditugu lokala arropa-salmentara egokitzeko. Atondo nagusian mostradore bat jarriko da, bezeroak ordainketa egin ahal izateko. Beste alde batetik, arropa biltegitatu ahal izateko beharrezko osagarriak instalatuko dira. Hauen artean, esekitokiak, armairuak... nabarmentzen dira. Era berean, arropa egoera onean mantentzeko garbigailuz eta garbiketa produktuz osatutako garbiketa-ekipo eraginkor bat ezarriko da. Obrako atal garrantzitsuenetako bat arropa ekoizteko edota sortzeko behar den makineria instalatzea izango da. Josteko makinak arropa berria ekoizteko ezinbestekoak izango dira. Makinez gain, arropa josteko beharko dugun materiala erosiko dugu, esate baterako; orratza, haria, oihalak... Azkenik, bi probagela ipiniko ditugu, bezeroek arropa probatu dezaten.

Kostua	Balioa
Alokailua	1.600 €
Mostradorea	900 €
Arropa biltegia	170 €
Garbiketa ekipoa	665 €
Arropa ekoizteko makineria eta materiala	470 €
Probadoreak	130 €
Eguzki-plakak (24V)	495€
Guztira	4.430€

Hasierako kostuak




Kostu finkoak:

Bestealde, beste motatako kostuei aurre egin beharko diegu; kostu finkoak. Horietako bat wifi sarea izango da. Denda internetera eta sare sozialetara konektatuta egon dadin, wifi sare bat instalatuko da. Era berean, telefono finkoa eta gure web-orrialdea ezinbestekoak izango dira komunikazioa mantentzeko eta bezeroarentzako arreta-zerbitzu on bat eskaintzeko. 800 euroko alokairua hilero ordaindu beharko dugun kostua izango da. Azkenik, lokalari gertatu ahal zaion edozein arazo finkatzeko, hala nola, hausturak, lapurketak, kaletak... aseguru bat kontratatuko da.

Kostua	Balioa
Wifi sarea	30 €
Mugikor-zuntza	30 €
Alokairua	800 €
Lokailuaren aseguruua	25 €
Guztira	885€

Kostu finkoak



Kostu aldakorrak:

Lokalari ematen diogun erabileraren arabera, honen gastuak handitu edo murriztu egingo dira. Hauek, kostu aldakorrak izango dira. Ura hauetako bat izango da. Ura erabiltzearen ondoriozko kostuak egunean zenbat arropa garbitzen den arabera izango da, eta kostuaren zifra oso aldakorra izan daiteke. Era berean, gure enpresa ingurumenarekin konprometituta dagoenez, elektrizitate berdez baliatuko gara arropa ekoizteko eta garbitzeko makineria funtzionazteko eta, argi eta garbi, gure lokalari argia emateko. Horretarako, “hola luz” enpresa esakintzen dituen zerbitzuak alokatuko ditugu. Beste alde batetik, gure soldata ordaintzea beste beharrezko kostua izango da eta hau hilero egingo ditugun arropa-salmenten arabera izango da.

Kostu aldakorren grafikoan dauden datuak hurbilketen bidez zehaztuta daude.

Kostua	Balioa
Ura	100 €
Elektrizitatea	140 €
Soldata	1.600 €
Guztira	1.840€

Kostu aldakorrak

